

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA EHU-UPV. 2020/21 IKASTURTEA




2020/21 ikasturtean Euskal Herriko Unibertsitaterako (EHU/UPV) aurreinskripzioa egin nahi baduzu, Izena-emateko inprimakia bete behar duzu eta bertan agertzen den e-mailera bidali (*Deskargatu, bete, gorde eta bidali*), **otsailaren 3tik martxoaren 23ra**.

Horretarako hona hemen argibideak:

1. **AURREINSKRIPZIOA**: eskatutako datu **guztiak** osatu behar dituzu:


- Datu pertsonalak
- Helbidea
- Sarbidea
- Unibertsitate Ikasketak Lehentasun ordenean Aukeratu (Graduak), gehienez zortzi (8)
- Hautaketa hau aldatu ahal izango duzu 2020ko ekainaren 22tik 26era, web-orrian.

2. **ONARPEN FASERAKO INPRIMAKIA**: EZ da derrigorrezkoa, borondatezkoa baizik; zikloko nota igo nahi izanez gero. Horrela bada, inprimakian atzealde horiz dagoena bete behar duzu, ikasgaiak (gehienez lau) zehaztuz. Matrikula ordaindu behar duzu. Hauexek aurtengo tasak:

-  arrunta = 86,33 €
-  familia ugari orokorra = 43,17 €
-  familia ugari berezia = 0,00 €

BANKUAREN DATUAK: Onarpen faseko azterketa egin nahi dutenentzat.

Datu hauek betetzea aukerakoa da. Bankuaren datuak betez gero: EHU/UPV Unibertsitateak tasa kobratuko dizu banku-helbideratzearen bidez.

-  **bankuaren datuak bete ezean**: aipatu tasa EHU/UPV Unibertsitateko bulegoan ordaindu beharko duzu; horretako epea 2020ko ekainaren 8tik 9ra bitartekoa da.

Zalantzak argitzeko edota informazioa eskuratzeko IDAZKARITZARA jo.